

MUSIKAK KOLOREAK DITU LEHIAKETA

PARTE HARTZE OINARRIAK

GAIA: "Musika" txikiaren ikuspegitik

MARRAZKIEK BETE BEHARREKO EZAUGARRIAK:

Marrazkiak DIN A3an aurkeztu beharko dira. Mindara elkarteak eskuragarri uzten duen kartulina erabili daiteke.

Marrazkia egiteko umeak aukeratzen duen edozein teknika onartuko da (akwarelak, olio-pintura, koloretako arkatx edo errotulagailuak, tinta...). Aipamen berezi bat egongo da informatika eta komunikazio teknologien erabileraz eginko marrazkien artean.

IZEN EMATEA:

Oarsoaldean bizi edo ikasten duten 2 eta 14 urte bitarteko ume guztiek izango dute parte hartzeko aukera. 2 maila egongo dira:

- 2 eta 7 urte artekoa
- 8 eta 14 urte artekoa

Parte hartzaile bakoitzak izen emate eta baimen agiria osorik beteta aurkeztu beharko dituzte.

Era berean, Mindara Elkartearen, ES25 2100 3936 35 0200106030 kontu korrontean, 5€-tako diru sarrera egitea beharrezkoa izango da. Lehiaketarekin biltzen den dirua, aniztasun funtzionala duten umeekin burutuko diren musikoterapia saioetara bideratuko da.

Parte hartzaile bakoitzeko gaiarekin lotura duen lan bat aurkezteko aukera egongo da.

Lan guztiak, izen emate eta baimen agiriarekin batera Mindara elkartera helarazi beharko dira, posta ziurtatuz edota zuzenean elkartearen bulegoan aurkeztuz.

Mindara Elkarte, Olibet kalea 6, baxua. 20100 Errenteria

Lanak aurkezteko epea, martxoaren 16tik apirilaren 16ko eguerdiko 14:00ak bitarte izango da.

Elkartearen ordutegia honakoa da: astelehenik ostiralera 11:00-13:00 eta 15:00-17:00.

SARI BANAKETA

Orotara 6 lan sarituko dira; maila bakoitzeko lan hoberena, originalena eta deigarriena.

Saritu guztiek oroigarri bana jasoko dute.

Telefonoz edota emailaz jakinaraziko zaie saridunei beraien marrazkia hautatua izan dela.

Mindara eta Musikhazi elkarteetako 4 ordezkari osatuko dute epai mahaia.

Lehiaketaren amaieran, aurkeztutako lanekin erakusketa bat egingo da.

Mindara elkarteak, aurkezten diren lanen, sari banaketaren eta erakusketaren argazkiak publikoki proiektatuko ditu.